

# HERIOTZA BIZIAK

## **IKUSPEGIA** (proiektu honen BALIO BEREIZGARRIA)

Proiektu honen atzean heriotzari diogun beldurra dago. Heriotza mingarria baita baina are mingarriagoa ez bada ondo bideratzen, ez bazaio zentzua ematen. Munduan zehar giza talde bakoitzak zentzu bat bilatu dio heriotzari eta horren araberako zeremonialak antolatu. Gure kulturaren eliza kristauak zentzu bat ematen zion heriotzari. Gaur egun erritu horiek gure kultura laikoaren izenean deuseztu egin ditugu eta horien orde ez dugu ezer jarri. Heriotza gaur egun zulo beltz bat da: ez dakigu zer gertatzen den, bukaera huts bat da, ez dago azalpenik, ez agur erritu ganorazkorik... Horrela zailagoa da hiltzea eta zailagoa da ere ingurukoentzat dolua egitea.

XXi. mendean Euskal Herrian heriotzari zentzua ekarri nahi dio proiektu honek. Heriotza ederra merezi dugulako, eta heriotzaren bidea modu eder batean egingo dugula jakinez gero, zentzua ulertzen badiogu, beldurra ere galduko diogulako. Eta heriotzari beldurra galtzeak bizitzeari beldurra galtzea ere badakar. Ez da gutxi.

Naturara bueltatze bat bezala proposatzen dugu heriotzaren bizipena.

## **DEFINIZIOA**

Heriotza Biziak proiektuak gustora hil ahal izateko moduko baldintzak sortzea bilatzen ditu.

## **ESTRATEGIA GLOBALA**

Heriotzak hiru aldi dituela esan dezakegu:

- Heriotza badatorrenean (istripu, hilketa eta suizidioan salbu)
- Agurra. Heriotzaren momentua bera eta hurrengo egunak (beilategien esparrua)
- Dolua

Gure asmoa eta estrategia erdiko tarte horretan begirada jartzea da, bizitzatik heriotzerako igarotze horretan:

- Batetik heriotza errituak egiteko modu berri, eder eta zentzudunak bilatu nahi ditugu.
- Bestetik, gorpuaren kudeaketan irizpide naturalak eta ekologistak ekarri nahi ditugu, gaur egun egiten diren hainbat praktika ezbaian jarritz eta aukera berriak irekiz.

## **DIAGNOSTIKOA**

Gaur egun hiltzea tristea, garestia eta kutsakorra da.

Alde batetik, sinismen kritauaren gainbeherarekin batera elizako errituak zentzu guztia galdu du jende askorentzat. Horren trukean dagoena ezerezaren parekoa da: inguruko lagun talde batek bestelako ospakizunen bat antolatzen duen kasu bakanak kenduta, zeremonia gehienek hustasuna uzten dute, ez dutelako atzean sinismen sendorik, ezerezean hiltzen garelako, ipuinaren bukaera bat bezala baino ez dugulako ikusten.

Beilategiek negozio itzela antolatuta dute heriotzaren inguruan, eta familiarentzako estres emozional handiko une hori baliatzen dute beren eskaintza eskura jartzeko, beste aukerarik ez balego bezala. Halaber, izan behar dutela uste ditugun gauza horiek itzel garestiak dira gainera.

Bestalde, gorpuen errausketa zein ehorzketa, gaur egun egiten diren moduan, gorpuei sartzen zaizkien produktuekin edo hilkutxek dauzkaten barnizak barne, oso kutsakorrak dira ingurugiroarentzat.

## **HELBURUAK**

-Heriotzaren ondorengoak baldintzatzen dituen lege frankista aldaraztea.

-Ehorzketa naturalak landa eremu batean egin ahal izateko egitasmoa martxan jartzea inguruko udal batekin. Horretarako bitarteko guztiak garatzea (legalak, praktikoak e.a.)

-Hildakoei agur goxoak egin ahal izateko eskaintza bat jorratzea, gure kultura zaharrea eta munduko kultura desberdinetan dauden erritu mota ezberdinak aztertuz eta gurera moldatuz, agur ekitaldi ederrak antolatu ahal izateko baliabideak eta espazioak bilatuz eta prestatuz, eta hildakoaren hurbilekoenganako aditze prozesu bat protokolizatuz, kasuan kasuko ekitaldi bereziak egin ahal izateko.